Hurrengo taulan jaso diren eskubideak urte bat baino epe laburrekoak dira, beraz ez da estimatzen kobragaitza edo kobraezina den eskubiderik.

KONTZEPTUA	KOBR. GABEKO HASIER. SALDOA	SALDO BERMATUA	KOBRAGAITZA %-TAN.	KOBRAGAITZA EUROTAN
URTEBETETIK BEHERAKO ZORRAK	15.903,68	0,00	0,00	0,00
3. kap.: tasak eta bestelako sarrerak	1.381,30	0,00	0,00	0,00
4. kap.: transferentzia arruntak	6.243,02	0,00	0,00	0,00
5. kap.: ondare sarrerak	4.891,36	0,00	0,00	0,00
7. kap.: kapital transferentziak	3.388,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	15.903,68	0,00	0,00	0,00



10.- AURREKONTU EMAITZA

21/2003 Foru Arauak 48. artikuluan arautu du aurrekontu emaitza.

Aurrekontu emaitza magnitude ekonomikoa da, eta hauxe adierazi nahi du: ekitaldian onartutako eskubideak noraino izan diren nahikoak finantzatu behar ziren obligazioei aurre egiteko (eta, halakorik balitz, itxitako ekitaldietako zenbait eragiketa aurtengo ekitaldian deuseztatzeak sortutako defizitari aurre egiteko).

AURREKONTUAREN EMAITZA			
KONTZEPTUAK	ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK	ONARTUTAKO OBLIGAZIO GARBIAK	URTEKO EKITALDIKO AURREKONTU- EMAITZA
Eragiketa korronteak	199.940,01	192.055,65	7.884,36
Kapital-eragiketak	15.000,00	5.075,01	9.924,99
Aktibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00
Pasibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00
1. URTEKO EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA (1=a+b+c+d)	214.940,01	197.130,66	17.809,35
KONTZEPTUAK	AINZATETSITAKO ESKUBIDEAK EZEZTATZEA	AINZATETSITAKO OBLIGAZIOAK EZEZTATZEA	ITXITAKO EKITALDIETAKO ADURREKONTU- EMAITZA
a) Eragiketa korronteak	0,00	670,01	670,01
b) Kapital-eragiketak	0,00	0,00	0,00
c) Aktibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00
d) Pasibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00
2. ITXITAKO EKITALDIETAKO AURREKONTU-EMAITZA (2=a+b+c+d)	0,00	670,01	670,01
3. DOIKUNTZEN AURREKO AURREKONTU-EMAITZA (1+2)			18.479,36
<u>DOIKUNTZAK :</u>			
a) Gastu orokorretarako diruzainzako gerakinarekin finantzatutako kreditu gastatuak			5.075,01
b) Ekitaldiko finantziazio-desbideratze negatiboak			0,00
c) Ekitaldiko finantziazio-desbideratze positiboak			0,00
4. DOIKUNTZAK GUZTIRA (4=a+b-c)			5.075,01
AURREKONTU- EMAITZA DOITUA (3+4)			23.554,37

11.- DIRUZAINZAKO GERAKINA


21/2003 Foru Arauak 48. artikuluan arautu du diruzaintzako gerakina.

Diruzaintzako gerakina magnitude finantzarioa da, eta entitateak epe laburrera izango duen likideziaren soberakina adierazten du. Bestela esanda: diruzaintzako gerakina ondoko egoera gertatuko balitz entitateak izango lukeen dirutzak osatzen du: epe laburrera kobratu gabeko eskubideen epemuga amaitu eta abenduaren 31n kobratzea, eta bilketa horren emaitzarekin eta data horretako fondo likidoekin epe laburrera ordaindu gabeko obligazioei aurre egitea, horien epemuga ere abenduaren 31n amaituko litzatekeela pentsatuz.

Hiru dira diruzaintzako gerakinaren osagaiak:

- Kobrantza zalantzarriko saldoetarako hornidura.
- Gehiegizko finantzaketa lotua.
- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.

Kobrantza zalantzarriko saldoetarako hornidura enteak kobragaitz edo kobraezintzat hartutako eskubide kobratu gabeen estimazioa da. Kobratu gabeko eskubide horiek 9. apartatuan zehazten dira.



Gehiegizko finantzaketa lotuak bi osagai ditu. Alde batetik, finantzaketa lotua duten gastuetan metatutako desbiderapen finantzario positiboek osatzen dute eta desbiderapen horiek ekitaldiaren amaieran kalkulatu dira erakunde finantzatzaile bakoitzarentzat eta, bere sorreran datzan gastu bera finantzatzeko erabili beharko da, edota halakorik balitza, proiektatu den gastua osorik edo zati batean burutu ezin izanak nahiz burutzeari uko egin izanak sortutako obligazioak estaltzeko. Bestalde, kontuan hartzen ditu baita ere, entitateak zuzkitu dituen beste hornidura batzuk.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina kalkulatzeko, diruzaintza gerakinari estimatutako kobrantza zalantzarriko saldoak eta gehiegizko finantzaketa lotua kenduko dizkiogu.


DIRUZAINZAKO GERAKINA		
Kontu zbk.	Osagaiak	Ekitaldia
57	1. (+) funts likidoak	25.389,78
	2. (+) Kobratzeke dauden eskubideak	41.849,73
430,433,437,438	-(+) urteko aurrekontukoak	31.569,37
431,434,439	-(+) itxitako aurrekontutakoak	0,00
440,442,449,456,470, 471,472,548,550	-(+) aurrekontukoak ez diren eragiketakoak	10.280,36
	3. (-) Ordaintzeko dauden obligazioak	29.311,80
400	-(+) urteko aurrekontukoak	16.030,11
401	-(+) itxitako aurrekontutakoak	0,00
165,166,180,185,410, 414,419,453,475,476, 477,502,515,516,521, 560,561	-(+) aurrekontukoak ez diren eragiketakoak	13.281,69
	4. (+) Oraindik aplikatu gabeko partidak	0,00
554,559	-(-) behin betiko aplikatzeko dauden egindako kobrantzak	0,00
555, 5581, 5585	-(+) behin betiko aplikatzeko dauden egindako ordainketak	0,00
	I. Diruzaintzako gerakina guztira (1 + 2 – 3 + 4)	37.927,71
4900,4901,4902,4903	II. Kobrantza zalantzarriko saldoak	0,00
	III. Gehiegizko finantzaketa lotua	0,00
	IV. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (I – II – III)	37.927,71

Beraz, aurtengo ekitaldia likidatzean diruzaintzako gerakina guztira 37.927,71 eurokoa izan da; horietatik:

⇒ 0,00 euro, hau da, kobrantza zalantzarriko saldoen hornidura, kredituen zenbatekoen balio-galera zuzkitzera zuzendu da.

⇒ 0,00 euro, hau da, gehiegizko finantzaketa lotua. Atal honek bi osagai ditu; alde batetik, finantzaketa lotua duten gastuetan metatutako desbiderapen finantzario positiboek osatzen dute eta bere sorreran datzan gastu bera finantzatzeko erabili daiteke; eta bestetik, kontuan hartzen ditu entitateak zuzkitu dituen beste hornidura batzuk.

⇒ 37.927,71 euro, hau da, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina, eta berau erabili ahal izango da, kreditu aldaketak finantzatzeko (bai finantzaketa lotua duten gastuetarako eta baita gastu orokorretarako ere).



12.- EMAITZAK EGIAZTATZEA

KONTZEPTUA	EURO
Aurreko ekitaldiko diruzaintzako gerakin gordina	19.448,35
+ Aurtengo ekitaldiko aurrekontu-emaiza (doitu aurretik)	18.479,36
Aurtengo ekitaldiko diruzaintzako gerakina guztira	37.927,71

13.- KREDITU GERAKINAK

Kreditu gerakinak, hain zuzen, behin betiko kredituei horien kargura onartutako obligazioak kenduz kalkulatu dira.

21/2003 Foru Arauak 44.1 artikuluan agintzen duenez, ekitaldian sortutako obligazioei aurre egiteko beharrezkoak ez diren aurrekontuko ordainketa-kredituak (hau da, kreditu gerakinak) zuzenbide osoz balio gabetako dira abenduaren 31n, ondorengo ekitaldiko aurrekontuari txertatu behar zaizkionean izan ezik.

Goian aipatutako Foru Arauak 32.1 artikuluan jaso du zein kasutan izango dugun kreditu gerakin horiek txertatzeko aukera. Hona hemen zerrenda:

- a) Transferitutako kredituak eta kreditu gehigarriak, baldin eta bi kasuetan ekitaldiko azken hiruhilekoan onartu badira.
- b) Erabilitako gastuetarako kredituak (D fasea), baldin arrazoi justifikatua dela-eta obligazioa ezin izan bada onartu.
- c) Gaitutako kredituak eta lotutako sarreraren menpeko beste kreditu batzuk.
- d) Kapital eragiketarako kredituak.


Ez-erabilgarritzat hartutako kredituak inola ere ezingo dira txertatu. Aurrekontuan txertatutako kredituek finantzatutako obligazioak, onartzekotan, txertaketaren ekitaldi berean onartu beharko dira; kreditu horiek, beraz, ezingo dira hurrengo urteko aurrekontuan berriro txertatu, lotutako sarrerak dituzten kapital eragiketarako kredituak izan ezik.

Horren arabera, ondoko taulan zehaztuta daude aurtengo ekitaldiaren likidazioaren emaitza diren eta txerta daitezkeen kreditu gerakinak. Txertaketa zuzitzeko, aurreko lau kasuetatik zeinetan aurkitzen diren ere zehazten da bertan. Nolanahi ere, kredituak txertatzea aukerakoa da eta, egitekotan, ekainaren 30a baino lehen onartu beharreko kreditu aldaketarako espediente baten (edo batzuen) bitartez egin beharko da.

PARTIDA	AZALPENA	GERAKINEN ZENBATEKOA	EGOERA				
			a	b	c	d	e
6 100.00.333.20 2017	Personal Gastuak	2.547,22			X		
1 622.01.333.20 2017	Inbertsioak	11.612,00				X	
TXERTA DAITEZKEEN KREDITUEN GUZTIZKOA		14.159,22					
TXERTATU EZIN DIREN KREDITUEN GUZTIZKOA		7.560,81					
KREDITU GERAKINEN GUZTIZKOA		21.720,03					

14.- ONDORIOAK

- Gastu Orokorretarako Diruzaintza Gerakina positiboa da eta beharrezkoak izango diren 2016ko kredituak inkorporatzeko nahikoak dira. Soberan geldituko den zenbatekoarekin kreditu gehigarriak finantzatu ahal daitezke. Bestalde 21/2003 Foru Arauak dioenaren arabera beharrezkoak izango diren kredituak inkorporatzeko azken eguna ekainaren 30a da.
- Aurrekontu Emaiza positiboa da eta 23.554,37 eurokoa da.



Ordizian, 2017ko martxoaren 31a.-Ordiziako Udaleko Kontu-hartzailea

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontu-hartzaile jaunak

Herri Antzokiko likidazioa azaltzen du eta bere gerakina 37.927,71 eurokoa dela esan du. Esan du gerakin hori, araudiak baimentzen duenean, Erakunde Autonomoko langileen ehuneko 1,75eko soldata-igoera ordaintzeko erabil daitekeela. Halaber, aurreko urteko kapital kredituak gehitzeko, baita 2018an sor daitezkeen behar berriei erantzuteko ere.

Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

9.- Kontuhartzailearen txostenaren berri ematea, aurrekontu egonkortasunari eta gastu arauari buruzkoa.

TXOSTENA

**AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN
HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA**

2017. URTEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

ARAUDI APLIKAGARRIA

* 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.

* 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.

* Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2016(e)ko azaroaren 8(e)an, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.


* Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2017ko martxoaren 7koa, Gipuzkoako toki entitateek 2017ko aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko aplikatu beharreko jarraibidea aldatzen duena.

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1. ENTITATE ZERRENDA:

1. ORDIZIA
2. ORDIZIAKO HERRI ANTZOKIA
3. SAN JOSE ZAHARREN EGOITZA
4. MAJORI KIROLDEGIA S.L.

2. HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA



Aurrekontuen egonkortasuna

Superabita: 625.057,74

Finantzen iraunkortasuna

Zor bizia: %35,19

Gastuaren araua

Gastu konputagarria: 11.140.168,10

Gastuaren muga: 11.716.559,14

Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak)

Zorren interesak

SEC doikuntzak

Admin. publikoen ekarpen finalistekin

finantzatutako gastua

Gastu konputagarria

Gastuaren hazkundearen muga:

Araudiaren aldaketan eragina:

Gastuaren muga

3. ONDORIOAK

Toki entitate honek bete egiten ditu aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2017. urterako ezarritako helburuak eta gastu araua. Beraz, toki entitate hau ez dago behartuta plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Ordizian, 2018ko maiatzaren 3an.-Kontu-hartzailea.- Sin.: Miguel Zubizarreta Elicegegi

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontu-hartzaile jaunak

Esan du 2012an, Aurrekontu Egonkortasun eta Finantza Jasangarritasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa indarrean sartu zela, baita Gipuzkoako Lurralde Historikora egokitutako 1/2013 Foru Araua ere, azken horrek Gipuzkoako toki entitateetan aurrekontu egonkoratsunaren eta finantza jasangarritasunaren alorretan finantza babesaren eskumena garatzen duela.


Txosten honetarako koantuan hartu da Udaletxea bera, baita Herri Antzokia, San José Egoitza eta Majori Kiroldegia, S.L. Erakunde Autonomoak ere.

Aurrekontu egonkortasunaren azterketa 1etik 7ra doazen kapituluaren arteko sarreraren ezberdintasunarekin egiten da eta 2017rako helburua negatiboa ez izatea da.

Gure kasuan, 625.057,74 euroko superabita egon da eta beraz, aurrekontu egonkortasuna betetzen dugu.

Finantza jasangarritasunari dagokionez, 2017rako helburua hau da: Zor Bizia likidatutako sarreraren % 77 baino handiagoa ez izatea. Gure kasuan, ehuneko 35,19 da eta beraz, finantza jasangarritasuna betetzen dugu.

2017ko ekitaldian gure gastu konputagarria 11.140.168,10 eurokoa da eta gastu muga 11.716.559,14 eurokoa. Hortaz, gure gastu konputagarria gastu muga baino txikiagoa denez, gastu araua ere bete egiten dugu.



Ondorioa: Udaletxeak aurrekontu egonkortasunaren, finantza jasangarritasunaren eta gastu arauaren helburuak betetzen dituenek, ez dago Ekonomia eta Finantza Plan bat onartzera behartuta.

Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

10.- Berri ematea: 2017ko kredituak 2018ra gehitzea.


2018/0537. DEKRETUA

ESPEDIENTE HASIERA

Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 32. artikuluan jasotakoaren babespean, eta ikusirik 2017eko ekitalditik datozen zenbait ordainketa kredituk aurtengo ekitaldiko aurrekontuari txertatzeko baldintzak betetzen dituztela, honako kredituak txertatzea ebatzi dut:

2018ko aurrekontuan kredituak txertatzeko proposamena.

Gastuen partida	Azalpena	Zenbatekoa
1 227.01.163.00.0800 2017	Kale garbiketa, Zaindariaren jaiak	23.445,28
1 226.07.231.00.1000 2017	JARD. ORDIZ. LAGUNKOIA eta DROGEN PREB.	1.325,22
1 226.97.231.00.1000 2017	Ematen ez diren zerbitzu multzoen garap	23.000,00
1 481.01.231.00.1000 2017	Transf. Drogen prebentziorako	1.197,32
1 481.02.231.00.1000 2017	Irab.xed.gab.erak.Transf..	4.750,00
1 481.03.231.00.1000 2017	Beste diru-lagun. Ongiz.saila	2.000,00
1 481.01.334.00.1200 2017	Erakundeei Transf. Kultura	726,85
1 481.06.334.00.1200 2017	Goierriko Jazzaldia: Arama Jazz Elkarte	1.125,00
1 481.07.334.00.1200 2017	Ordiziarrock: Ordiziako Trobadore Alaiak	1.375,00
1 481.09.334.00.1200 2017	Musika: Beti Argi Musika Banda	1.192,12
1 481.10.334.00.1200 2017	Dantza Taldea:Amets Bide Kultur Elkarte	1.250,00
1 481.11.334.00.1200 2017	Erraldoiak: Azen Erraldoien Lagunak E.	1.900,00
1 481.16.334.00.1200 2017	Lazkao txiki bertso papera:Argi Berri E.	670,00
1 481.19.334.00.1200 2017	Abesbatza: Santa Ana Abesbatza	375,00
1 481.23.334.00.1200 2017	Artea: Altarte Elkarte	800,00
1 481.03.337.10.1100 2017	Zuhaizti Jubilatuen eta Pentsiod.Elkarte	5.900,00
1 481.02.338.10.1400 2017	Musika: Beti Argi Musika Banda	2.125,00
1 481.03.338.10.1400 2017	Erraldoiak: Azen Erraldoien Lagunak E.	1.900,00
1 481.02.338.30.1400 2017	Musika: Beti Argi Musika Banda	823,00
1 601.01.153.40.0800 2017	ESPALOIEN KONPONKETA	122.714,73
1 623.01.163.00.0800 2017	Kale Garbiketa	146.289,00
1 226.99.241.00.0100 2017	Enplegu sustapena. Formakuntza	5.418,68
1 481.01.337.20.1600 2017	Transf. Gazteria	1.500,00
1 481.01.338.20.1400 2017	Musika: Beti Argi Musika Banda	116,13
1 601.01.171.20.0800 2017	ALTZARIAK	8.438,82
1 601.04.153.20.0800 2017	Kale asfaltatzea	46.742,27
1 620.01.170.00.1700 2017	PREPARACION HUERTA DE OCIO	20.000,00
1 622.01.171.10.0800 2017	ERABILERA ANITZEKO PARKEA	14.067,04
1 622.01.342.00.1500 2017	KUBOAREN OBRA ZUZENDARITZA	21.212,00
1 623.01.431.10.1400 2017	Orga jasotzailea	8.999,98
1 624.01.163.00.0700 2017	Garbiketarako lbigailua	1.784,75
1 629.01.337.10.1100 2017	Zuhaizti zentru sozialeko inbertsioak	335,12



1 642.01.151.00.0000 2010	REDACCION PLAN GENERAL	6.292,00
1 643.01.231.00.0000 2016	PLAN ESTRATEGICO BIENESTAR SOCIAL	46.891,00
1 643.01.337.20.1600 2017	GAZTEDI PLANAK	17.854,00
1 226.06.924.00.0100 2017	Partaidetzazko prozesuak-Plan Orokorra	13.475,44
1 481.03.334.00.0000 2016	TRANSFERENCIAS ANIVERSARIO. CULTURA	1.800,00
1 642.02.151.00.0700 2017	Obrak eta proiektuak San Bartolome	364.216,88
1 601.01.153.40.0000 2016	ESPALOIEN KONPONKETA	29.001,33
TXERTATU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA		953.028,96

2018ko aurrekontuko kreditu txertaketaren finantzaketa

Sarrerren partida	Azalpena	Zenbatekoa
2 870.02.000.00.0000 2018	Diruzaintza gerakina kredituak inkorpora	953.028,96
FINANTZAKETA GUZTIRA		953.028,96

Hasiera eman dakiola aurreko ekitaldiko aurrekontuko ordainketa kredituak ekitaldi honetako aurrekontuan txertatzeko espedienteari, aipatutako xedapenetan jasotako erregulazioari jarraiki.

* Dekretu hau doakionari jakinaraztea.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak

2017ko kredituak 2018ra gehitzea zertan datzan azaltzen du. Gehitze hori, bere zenbatekoagatik, Alkateak dekretuz onartu da.

Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

11.- 2018ko aurrekontuaren hasierako onarpena.


Proposamena

Gipuzkoako lurralde historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 14. artikulua arabera, Udaletxearen aurrekontu orokorra, beharrezkoak diren jarraibide ekonomikoekin, Alkateak osatuko du. Aurrekontu orokorra udalaren beraren aurrekontuaz gain, Erakunde Autonomoetako eta menpeko udal sozietateetako aurrekontuek ere osatuko dute.

Aurrekontu proiektua akordio proposemen honi, 1. eranskin bezala, eransten zaio.

Aurrekontu proposamenari zatiko zuzenketak egiten bazaizkio, (2. ERANSKINA), horiek bozkatu egin beharko dira eta onartzen badira, Alkateak egindako aurrekontu proiektuan sartuko dira eta horrela, Osoko Bilkurak bozkatu beharreko Aurrekontu Proiektu berri bat osatuko da.

Bere hasierako onarpenaren ostean, 21/2003 Foru Arauaren 15. artikulua arabera, jendaurreko erakusketan egon beharko da 15 egunez, eta erreklamaziorik ez balego, akordioaren hasierako onarpena behin betikoa bilakatuko litzateke.



Ordiziako Udala

2018IOSB0005

Horiek horrela, hau onartzea proposatu da,

AKORDIO PROIEKTUA

.- 1. eranskinaren arabera, 2018rako aurrekontuari hasierako onarpena ematea, eranskin hori 2. eranskinean agertzen diren eta onartuta dauden zatikako zuzenketekin moldatu da.

.- Hasierako erabaki hori GAO-n jarritako iragarki baten bitartez, 15 egunez, jendaurreko erakusketan jartzea.

.- Jendaurreko erakusketaren epean alegaziorik ez balego, hasierako onarpena behin betikoa bilakatuko litzateke.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak

Onarpenerako aurkezten duen aurrekontu proiektuaren alderdirik garrantzitsuenak azaltzen ditu.

Jakinarazten du aurrekontu proiektuak Gipuzkoako Toki Entitateen Aurrekontuaren 21/2003 Foru Araua betetzen duela.

Gaineratzen du proiektu hau, 2018ko otsailaren 5ean, alderdi politikoei guztiei, eta baita herritarrei ere, aurkeztu zitzaiela eta gaurko egunean oraindik ez dela ekarpenik jaso.

Eguren jaunak

Jakinarazten du bere taldeak, O.ORAINekin batera, aurrekontu proiektu horri zatikako zuzenketa batzuk egin dizkiola.

Ezenarro jaunak

Azaltzen du Alkateak esan duela aurrekontu proiektua alderdi politikoei otsailean aurkeztu zitzaiela. Hori ez dela egia, otsailean aurkeztutako aurrekontu txostenak 2 milioi euroko inbertsioak aurreikusten zituelako eta prentsaurrekoan 4 milioiz hitz egin zela.


Gaineratzen du, 2016an, egin ez ziren hainbat inbertsio onartu zirela eta 2017ko aurrekontu luzatuetan ere ez zirela egin; beraz, 2018rako galdu egin direla eta urte honetarako berriz ere sortu eta onartu beharko liratezkeela.

Horrela heldu zela apirila bukaerara; izan ere, orduan aztertu zela nola gehitu zitezkeen inbertsio horietarako beharrezkoak ziren partidak eta kreditua, eta bere ustez, inbertsio horiek oso garrantzitsuak direla. Aurrekontu proiektua oraindik ez zegoela argi.

Esan du dokumentuak aldaketa asko izan dituela eta gobernu taldearen erantzukizuna dela behar bezalako dokumentu bat prestatzea.

Lehenengo, aurkeztutako aurrekontu proiektuan aurreikusita ez dauden inbertsioak zerrendatzen ditu:

- Majoriko proiektu osoa: 1.500.000 euro. 1.500.000 euroko mailegu bat adostearen alde daude, baina 3.000.000 euro gehiegi iruditzen zaie, baita zuhurtzia gutxikoa ere; batez ere, proiektu osoak, benetan, zenbat kostatuko duen oraindik ez dakigunean. Beraz, I. faserako beharrezkoak den maileguaren alde daudela.



Ordiziako Udala

2018IOSB0005

- Azkenaldian prentsan horrenbeste agertu den Ordiziako Proiektu Estrategikoa. 60.000 euroko partida bat proposatzen dute; izan ere, herriko azoka sustatu eta bultzatuko duen Ordiziarako proiektu bat egitearekin ados daude.
- KULTURLAB proiektua: 750. urteurrenaren barruan zenbateko handi bat zuzentzen da, baina gero, hori ez da inon agertzen.
- Irisgarritasuna: 104.642,85 euroko partida bat sortzen dute horri dagozkion proiektuak egiteko eta diru-laguntzak eskatu ahal izateko.
- Argindarra: 200.000 euroko partida bat proposatzen dute, zenbateko handia gero, kontsumoan, amortizatu eta berreskuratuko dena.
- KZ Gunea eta Artxiboa eta Osasun Zentroa handitzea: esan du informazioa berriki jaso dutela eta oso haserre daudela proiektua oztokatzen ari dena oposizioa dela esan delako edo hori aditzera eman delako. Eta hori ez dela egia. Bere ustez, adabakiak jartzen ari dira eta uste dute kostua suposatzen duen zerbait egin behar bada, zentzuz egin behar dela.
- Asfaltatze lanak: 60.000 euroko partida bat proposatzen dute, azken urteotan horretarako erabili izan den kopurua hori delako.
- Komun publikoen instalazioa: 137.000 euroko partida proposatzen dute.
- Hezitzaileak hondakinen birziklapenerako.
- Emakumeen kirola.
- Laguntzak 65 urtetik gorakoentzat, adibidez, osasun zentrorra joateko taxi zerbitzua edo beste zerbitzu batzuk.
- Oiangurentzat karpa erostea, etab.

Gaineratzen du, Kontu-hartzaileak, teknikoki, zuzendu edo egokitu beharreko zerbait ikusiko balu, horretarako prest egongo lirakekeela.

Gastuari dagokionez, proposatutako inbertsioak nola finantzatuko diren azaltzen du eta gastuak finantzatzeko murrizten diren partidetan, zuzenketetan, agertzen direla.

- Plan Orokorrerako aholkularitza juridikoaren gastuei dagokienez, proposatzen dute bakarrik behar-beharrezkoak diren azterketak kontratatzea eta udaletxeko zerbitzu teknikoek eman ezin dituztenak.
- Bustuntza Plazari dagokionez, uste dute plaza berreskuratu behar dela, balioa eman behar zaiola.
- Gizarte Zerbitzuetan gizarte-langile bat eta Berdintasun Teknikari (lanaldi erdian) bat kontratatzea aurreikusten da, lanpostu horiek urrira arte, gutxienez, ez dira beteko.
- Aurkeztutako aurrekontu proiektuan gobernu taldearen gastuak handitu egiten dira, haien proposamena zenbateko berdinarekin mantentzea da.
- Laguntza teknikoko pertsonal-gastuak murriztu behar dira. Laguntza puntualen bat behar izanez gero, ez daude langileak kontratatzearen kontra, baina uste dute sail bakoitzaren beharrak, bere osotasunean, aztertu eta berrikusi behar direla.
- Publizitatea ere murrizten dute.


Sukia andreak

Gogoratzen du 2017an aurrekontuak ez zirela onartu gobernu taldearengan konfiantza galdu zutelako.

2016an, oposizioko alderdien konfiantzazko botoarekin, aurrekontuak adostu ostean, gobernu taldeak hartutako konpromisoak ez dira bete.

Hortaz, 2017ko aurrekontu luzatuaren ostean, Alkatetzaren aurrekontu proiektuan proposatutakoari inbertsio berri eta ezberdinak planteatzen dituzten zatikako zuzenketak proposatzea adostu dute, beste partida batzuetatik gastuak murriztuz.

- "Ordiziako Azoka" proiektua manipulatuta da. "Ordiziako Proiektua" aztertu eta landu behar da eta ez du zertan aparkaleku proiektu bat izan behar.



- Kultur Lab proiektuari ez zaio aurrekontu partidarik eman.
- Irisgarritasunean, legegintzaldi hasieratik proposatu dituzen eskaerak bildu dituzte.
- Bakea eta bizikidetzatza: 6.000 euroko partida bat zuzendu dute. Zenbateko txiki horrekin emaitza handiak lortu daitezkeela jakinda ere, ez da orain arte ezer egin.
- KZ Gunea eta Artxiboa eta Osasun Zentroa handitzea. Esan du hitzeman zela zentroko medikuekin bilera bat egingo zela eta ez dela egin. Gaineratzen du atzo, zentrorra hurbildu zela eta bertako arduradunek jakinarazi ziotela eraikina, bere osotasunean, lagatuko balitzaie, zentroari etorkizunerako konponbidea eman lekiokela.
Artxiboa hor egotea adabakiak jartzea dela. Uste du artxiboa udaletxeko behealdean kokatu daitezkeela, Arreta Bulegoa eta Kontsumo bulegoa Udaltzaingora lekualdatuz.
- Argiteria publikoko partida 200.000 euroraino handitzen dute, inbertsio hori 3 urteko epean amortizatu egingo delako energia kontsumoan. Benetan harritu egiten duela udal eraikinetako argiteria gastua ez ukitzeak.
- Hondakinen birziklapenarekiko insentsibilizazioa dagoela. Sasietako teknikariek hori berresten dute eta horregatik, birziklapena lantzeko hezitzaileak jartzea proposatzen dute.
- Eskualde mailako emakumeen kirola
- Komunak auzo ezberdinetan
- Taxi-bus eta beste hainbat zerbitzu adineko pertsonentzat.

Laburbilduz, Ezenarro jaunak dagoeneko azaldu dituen zuzenketak direla.

Dubreuil jaunak

Esan du Alkatetzak aurkeztu duen aurrekontu proiektuaren alde bozkatuko duela eta oposizioko alderdiek aurkeztutako zuzenketetan abstenitu egingo dela, horietako batzuk ez daudelako aski garatuta (immigrazioa, enplegua, osasuna...).

Hondakinen birziklapenari dagokionez, ez du uste heziketa falta denik. Uste du zigor-espedituekin hasi behar dela.

Kultur Lab proiektuari dagokionez, esan du aurrekontu partida badagoela eta egin behar dena, lokalen kudeaketa aztertzeko, lan-mahai bat adostea eta osatzea dela.

Sukia andreak

Dubreuil jaunari erantzuten dio hondakinen birziklapenean, Sasietatik, dagoeneko zigor-espedituek abiarazi direla eta proposatzen du kontzeptu horrekin dauden sarrerak ingurumenarekiko sentsibilizatorako eta heziketarako erabiltzea.

Bolinaga jaunak

Esan du Ezenarro jaunak esan duena ez dela egia. Kirol azpiegituren mahaian egiten ari den lana garrantzitsua eta kalitatezkoa dela.

Lehenengo eta behin, aurkeztutako zatikako zuzenketak bozkatzeko dira.


Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (EH Bildu 5, Ordizia Orain 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 5 (EAJ-PNV 4, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)



Jarraian, eta zatikako zuzenketak gehiengoz onartu direnez, Alkatetzak proposatutako aurrekontu proiektua onartutako zuzenketekin bozkutzen da.

Bozketa

Aldeko botoak: 7 (EH-BILDU 5, O.ORAIN 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 5 (EAJ-PNV 4, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Alkate jaunak ondorioz, proposatutako aurrekontu proiektua, gehiengoz onartutako zuzenketak gehituta, onartutzat ematen du.



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

12.- 2018ko Plantilla Organikoaren hasierako onarpena.

Proposamena

Toki Entitateen Oinarriak Arazten dituen 1985ko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90. artikulua eta Euskal Funtzio Publikoko 6/89 Legearen 20. artikulua zehazten duenaren arabera, Udaleko osoko bilkurari dagokio urtero Aurrekontuak onartzea, eta funtzionarioen, langile finko eta aldi baterako langileen lanpostu guztiak bateratzen dituen langileen plantilla.

Aipatutako arautegia betetzeko eta dauden aurrekariekin, azterketa eta justifikatzeko agiriekin, Idazkaritzak eta Kontu-hartzaileak Udal honetako 2018 urterako Plantilla Organikoa eratu dute, aipatutako aginduek zehazten dituzten irizpideei erantzunez.

Horrekin batera Majori Kiroldegiak eta OOAA (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia), goian aipatutako artikulua kontuan hartuta, 2018 urteko ekitaldirako dagozkien Plantilla Organikoak egin dituzte eta 2018 apirilak 18ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen oniritziarekin Udaleko osoko bilkurari onartzeko aurkezten dute honen bitartez.

Aurrekoa kontuan hartuta, honako erabakia hartzea proposatzen da

AKORDIO PROIEKTUA

Lehena.- 2018 urteko ekitaldirako Plantilla Organikoa hasieraz onartzea, Udal honetako langile funtzionarioei dagozkien plazak dituen, eta erabaki honen ERANSKIN gisa doana.


Bigarrena.- Majori kiroldegia SL eta OOAAen (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia) Plantilla organikoak hasieraz onartzea, 2018 urteko ekitaldirako langile finkoentzat gordetako lanpostu guztiak dituen.

Hirugarrena.-Espedientea jendeaurrean jartzea, hamabost lanegunez, dagozkion erreklamazioak era iradokizunak aurkeztu ahal daitezen, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik zenbatzen hasita.

Laugarrena.- Agiri hauek behin betikoz onartutzat ematea, erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:



Sukia andreak

Langileen Batzordeko ordezkariari eman die hitza.

Insausti jaunak

Esan du ordezkatzeko duen Langileen Batzordea Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda onartzearen alde dagoela, beti ere, Alkateak Ordiziahitzen Jarraipenerako Batzorde Paritarioan adostutako lanpostuekin Lan Publikoaren Eskaintza onartzeko konpromisoa hartzen badu.

Alkate jaunak

Hitzematen du.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (EAJ 4, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

13.- 2018ko Lanpostuen Zerrendaren hasierako onarpena.

Proposamena

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.2 artikulua eta Euskal Funtzio Publikoko Legearen 14. artikulua zehazten duenaren arabera, Udaleko osoko bilkurari dagokio lanpostu zerrenda onartzea, aurrekontuetan aurreikusitako guztiak jaso beharko ditu, funtzionarioak, langile finkoak eta aldi baterako langileak bereiziz.

Aipatutako araudia oinarri harturik, Idazkaritza eta Kontu-hartzaitza Sailak lanpostuen zerrenda eratu du, Euskal Funtzio Publikoaren legearen 15 artikuluan zehaztutako irizpideak kontuan hartuz.


Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legearen 97 artikulua zehaztutakoaren arabera, hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun-data lanpostuen zerrendan finkatuta egon behar dute.

Bestalde, Majori Kiroldetgia SL eta OAAA-k (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia), 2018 urteko ekitaldirako Lanpostuen Zerrendak eratu dituzte, aurrekontuetan behar bezala finkatuta.

Hau guztia kontuan izanik, honakoa proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

Lehen.- 2018 urteko ekitaldirako Lanpostu Zerrenda hasieraz onartzea, Udal honen zerbitzura dauden lanpostu guztiak barnean dituen, aurrekontu-dotazioak dituztela, erabaki honetako ERANSKIN eremuan dagoen bezala.



Bigarrena.- Majori Kiroldesia SL-ko eta OAAA-etako (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia) lanpostu guztiak, 2018 urteko ekitaldirako Lanpostuen Zerrendak onartzea, dagozkion aurrekontu-dotazioak dituztela.

Hirugarrena.- Espedientea jendeaurrean jartzea, hogeitun lanegunez, dagozkion erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal daitezen, dagozkion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik zenbatzen hasita.

Laugarrena.- Lanpostuen Zerrenda behin betikoz onartutzat ematea, erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Insausti jaunak

Aurreko puntuan esandakoa errepikatzen du.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (EAJ 4, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)
Kontrako botoak: 0
Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak presazko bidetik sartutako hurrengo puntuaren berri ematen du.

14.- Ordizia Lantzen S.A.-ri abala ematea Aldundiaren finantza-babesa eskuratzeko

Lehenik eta behin, aurkeztutako puntuaren presako izaera bozkatu da.


Presazko izaera bozketzea.

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (EAJ 4, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)
Kontrako botoak: 0
Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, presazko izaera aho batez onartutzat eman du.

ORDIZIA LANTZEN, S.A.-RI ABALA EMATEA ALDUNDIAREN FINANTZA-BABESA ESKURATZEKO



Ordiziako Udala

2018IOSB0005

Aurten, baldintza hobeak lortzeko edota amortizazio epeak handitzeko, Ordizia Lantzen SA-ren bi mailegu birfinantzatzuko direla ikusita.

Gaur egun entitate hauekin eta baldintza hauetan bi mailegu daudela ikusita:

- **LABORAL KUTXA:**
 - Ordaindu gabe dagoen kapitala: 450.000 €.
 - Epea: hiru mugaegun falta dira, bakoitzean 150.000 € (2018-07-08, 2019-07-08 eta 2020-07-08).
 - Interesa: Euribor + % 2,10.
- **CAIXABANK:**
 - Ordaindu gabe dagoen kapitala: 81.559,69 €.
 - Epea: 2032-08-06.
 - Interesa: Euribor + % 1,00.

Bi maileguak ezaugarri hauek edukiko dituen mailegu berri honengatik ordezkatzeari komenigarritzat jo da:

- **BANKINTER mailegu berria:**
 - Epea: 96 hilabete (8 urte)
 - Interesa: Euribor + % 1,15
 - Zenbatekoa: 531.559,69 euro

Horretarako, beharrezkoa da Udaletxeak Ordizia Lantzen SA-ri abala ematea eta zenbatekoa mailegu berriaren kopurukoa izan behar da, 531.559,69 eurokoa.

Horiek horrela, honako akordio proiektu hau onartzea proposatzen da.

AKORDIO PROIEKTUA

Ordizia Lantzen S.A.-ri 531.559,69 euroko abala ematea onartzea, 2018ko aurrekontu Luzatuaren exekuzio-oinarrien lehenengo puntua aipatutako kopururaino aldatuz.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (EAJ 4, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0


Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak presazko bidetik sartutako hurrengo puntuaren berri ematen du.

Lehenik eta behin, aurkeztutako puntuaren presako izaera bozkatu da.



Presazko izaera bozkatzea.

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (EAJ 4, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

15.- Osoko Bilkurak Haur Eskola zerbitzuaren kontratua esleitzeko ahalmena Alkateari eskuordetzan ematea

OSOKO BILKURAK HAUR ESKOLA ZERBITZUAREN KONTRATUA ESLEITZEKO AHALMENA ALKATEARI ESKUORDETZAN EMATEA

Udal Haur Eskolako zerbitzua emateko kontratuaren esleipenerako hasi den lizitazio-espedientearen berri ematen da. Horretarako sortu zen Kontratazio-mahaiak Alotza Haurtzaindegiko Guraso Elkarteak aurkeztu zuen eskaintza proposatu zuen kontratuaren esleipenerako, hori izan baitzen aurkeztu zen eskaintza bakarra.

Legez ezarritako epean, kontratua formalizatzeko behar zen dokumentazio guztia Elkarteari eskatu zitzaion, besteak beste, behin-betiko bermea eratzeari.

Elkarteak, bermea izan ezik, gainontzeko dokumentazioa aurkeztu zuen. Izan ere, bankuko entitateekin abala kontratatzeke arazoak izan zituen eta horregatik, epea luzatzeko eskatu zuen, eta ostean, berriz ere, beste luzapen bat 2018ko apirilaren 30ean bete zena.

Egun horretan, udaletxeari jakinarazi zion KUTXArekin abal baten kontratazioa tramitatzen ari zela eta laster aurkeztu ahal izango zuela, kontratua izenpetu ahal izateko.


Gaur bertan Alkatetzan jakinarazi da KUTXAk abala jasotzeko banku-eragiketara bihar sinatuko dela.

Kontratuaren zenbatekoa 2.220.000 euro (740.000 euro urtean eta 3 urteko epea) direla ikusita, esleipena egiteko kontratazio-organo eskuduna udaletxeko Osoko Bilkura da.

Idazkariak jakinarazi du Alkateari eskuordetzan eman dakizkiokeen Osoko Bilkurako ahalmenen artean, kontratu hau esleitzeko ahalmena dagoela. Toki-Jaurbidearen Oinarrien Legearen 22.4. artikulua arabera, eskuordeezinak diren ahalmenen artean, hori ez da aipatzen, eta ez du lege-testu horren 47. artikuluan ezartzen den gehiengo kualifikaturik behar.

Kontratuaren esleipena ahalik eta azkarren bukatzearen mesedetan; izan ere, praktikan, zerbitzua ematen ari da, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA



LEHENENGOA.- Osoko Bilkurako ahalmena Alkateari eskuordetzan ematea, Alotza haurtzaindegiko Guraso Elkarteari Haur Eskolako zerbitzua emateko kontratua esleitzeko. Hori guztia, udaletxeko Lege Zerbitzuek Guraso Elkarreak jarritako abalaren egokitasuna egiaztatu ostean.

BIGARRENA.- Alkateari kontratua eta esleipena egiteko behar diren agiri guztiak izenpetzeko ahalmena ematea.

HIRUGARRENA.- Esleipena bidaltzea, GAO n publiko dezaten.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak

Jakinarazten du Kutzak emango omen diola Alotza Haurtzaindegiko Guraso elkarteari Udalak eskatutako abala.

Litekeena dela bihar Notariotzan abal hori izenpetzea eta udaletxean aurkeztu ahal izatea.

Idazkariak jakinarazi diola osoko bilkurak Alkateari esleitzeko ahalmena eman dakiokoela eta eskumenaren eskuordetza proposatzen dela kontratuaren esleipena gehiago ez atzeratzearen.

Idazkari andreak

Esan du kontratuak, urtean, 740.000 euroko zenbatekoa eta 2.220.000 euroko esleipen-zenbatekoa duenez (3 urteko iraunaldia duelako), kontratua esleitzeko organo eskuduna udaletxeko osoko bilkura dela. Aldi berean, jakinarazten du, legez posible dela esleipena eskuordetzan ematea. Toki-Jaurbidearen Oinarriak Arautzen dituen Legearen 22.4 artikulua arabera, osoko bilkurak bere eskumenen jardutea Alkateari eskuordetu ahal izango dizkio, kasu hauetan izan ezik: 2. atalean, a), b), c), d), e), f), g), h), i), l) eta p) paragrafoetan eta artikulua horretako 3. atalean agertzen diren kasuetan.

Ez gaude aipatutako egoera horietan.

Gainera, kontratuaren esleipenak ez du eskatzen Toki-Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 47. artikuluan eskatutako gehiengo berezirik, hortaz, osoko bilkurak Alkateari eskuordetu diezaioke eskumen hori.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:


Aldeko botoak: 4 (EAJ/PNV)

Kontrako botoak: 2 (O.ORAIN)

Abstentzioa: 6 (EH-BILDU 5, PSEE-PSOE 1)

Alkate jaunak ondorioz, proposamena gehiengoz onartutzat eman du.





Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

14.- Galderak eta eskaerak.

- Sukia andreak galdetzen du osoko bilkuran hartzen diren erabakiak betetzeko eta horien jarraipena egiteko mahaia ia noiz eratuko den.
- Ezenarro jaunak, udal aldizkaria dela eta, gobernu taldeak aldizkarian hartzen duen lekua kritikatu du.


Esan du oposizioko alderdiei eskainiko zaizkien lekuak horren txikiak badira, hoberena atala kentzea litzatekeela.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut.

ALKATEA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA



Ordiziako Udala

2018IOSB0005